



Ertzaintzak eta udaltzaingoeak 500 agente berri izango dituzte 25 eskualdeetan

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 10/11/2023

Azaroaren 14an hasiko dira lanean Arkauteko akademian graduatutako poliziak.

Ostiral honetan kredentzialak jaso dituzte Arkauteko Akademian 500 polizia berrik, zehazki, Ertzaintzako 377 agente eta Abadiño, Amorebieta-Etxano, Amurrio, Arrasate, Bakio, Balmaseda, Barakaldo, Basauri, Berango, Bilbo, Donostia, Durango, Eibar, Elorrio, Erandio, Galdakao, Getxo, Irun, Laudio, Markuna-Xemein, Mungia, Muskiz, Sondika, Gasteiz eta Zierbenako 123 udaltzain. Kredentzialak emateko ekitaldian, Iñigo Urkullu lehendakaria egon da eta hau emandako hitzaldian ETaren kontra jo du, erakundeak exekutatu indar errepresiboetako kideei isiltasun minutu bat eskainiz. Polizia promozio honetan gazteak dira gehienak izan ere % 85 baino gehiago 18 eta 34 urteko adin-tartean daude.

<https://eh.lahaine.org/ertzaintzak-eta-udaltzaingoeak-500-agente>